

JOSE MARI ETXABURU "KAMIÑAZPI"

Jose Mari Etxaburu Ondarroan jaio zen 1913ko irailaren 23an. Ikasketak Ondarroan bertan egin zituen. Gaztetxotatik zen euskaltzalea eta hogeitertekin hasi zen Ekin aldizkarian idazlanak argitaratzen. Geroztik etenik gabe jarraitu du beste honako aldizkari hauetan: Argia, Euzkadi, Karmel, Zeruko Argia, Goiz Argi, Anaitasuna eta beste zenbaitetan. Batzutan "Iturri.ondo" eta gehienetan "Kamiñazpi" izenordez agertuak ziren. Hondarribia honetan ere agertu izan ditu bere lan batzuk. Kamiñazpi, izatez, Ondarroako bere auzoaren izena zuen eta euskaltzalerik gehienok J.M. Etxaburu izen horrekin ezagutzen dugu.

Bere familiarekin, duela urte asko etorri zen Hondarribian bizitzera.

1957an Eibarren ikastolak sortu genituenean, "Ikazterre" azaldu zitzaigun filantropo gisa haur euskaldunen sariketa antolatzeke dirua eskainiz eta zenbait urtez hontan jarraitu genuen.

Jose Mari Etxaburu, nik neuk, 1959. Urte inguruan ezagutu nuen, Eibarrera Ondarroako hainbat haur euskarazko sariketan parte hartzera eramaten hasi zenean. Eta geroztik beti izan dugu elkarrekiko harremana.

Hain euskaltzale bikaina zenez, bere lanen eskergarri ondo merezia zuenez, 1966. Urtean, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen.

Harrez geroztik argitaratu dituen liburua honako hauek dira: Ondarrabiako kondaira (1986), Nere lau urteko ibillerak (1989), Neure idazlan bilduma (1991) eta Ondarroako kontuak (1995).

Bere bizkaierari oso loturik zegoen eta ez zuen hain gogoko euskara batua. Dena dela, herri guztietan behar genituzke bertakoaz arduratzen direnak. Eskoletan euskara ikasteko aukerarik izan ez zutenak, toki bakoitzean bertakotik hastea ondo deritzaigulako.

Hizkuntza batua edo estandarra akademia guztiek arautzat harturik egin dutena da. Indartzeko beharrezko zaigu elkarganatzea eta epe luzean eskoletatik eskainiko digute liburu testu guztiak berdintzea.

Gaur egun, ibilgaituak eskaintzen dizkiguten erraztasunagatik, edonor gaude egun batean Euskal Herriko mutur batean eta urrengo bestean. Eta horretarako ere on zaigu euskara batuaz arduratzea.

Nik neuk ordea, edonora joanaz euskara batua erabiltzen badut ere, Eibarren ahoz eibartarrez hitz egitean gainera, Eibar aldizkarian, bai lehen eta bai

EROSLE

CHARTER SUNDDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA



DISCOTECA
TRUCK
HONDARRIBIA

Foru Kalea,
Z/G


Almirante
Alonso
Kalea, 12



Kaizar Pub

ETXABURU'tar JOSE MARI
«KAMIÑAZPI»

ONDARRABIAKO KONDAIRA



Jose Mari Etxaburuk hainbat lan egin ditu Hondarribiari buruz.

orain, eibartarrez idatzi izan dut. Baia, gainerantzean, 1968an Arantzazuko Batzarretan Euskaltzaindiak onarturiko euskara batua erabiltzen dut.

Hori dela eta, Jose Mari eta biok inoiz eztabaidaren bat edo beste izan dugu. Baina beti lagun jarraitu izan dugu. Azken batean, euskara bai dugu euskaldunon artean erabili beharrezkoa, bai ahoz eta bai idatziz. Zeren gure hizkuntzak, biziko bada, beharrezko du erabili behar hori, nahiz batuan edo euskalkietan.

Euskalki bakoitzak badu bere zer eskainia. Zeren, herri bakoitzak badu batuari zer eskaini. Horregatik, inork ukatu ezinezkoa deritzat bakoitzak bere eran eta ahal duen bezala euskaraz idaztea. Lan horretan Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi" jaunak bere egitekoak oso ondo bete izan ditu. Eta, egia esan, asko poztu nau Hondarribiko Udalak eskaintzen dion omenaldia. Ondo merezia bai du bere bizitzan zehar gure hizkuntza jatorraren alde egin duen guztiagatik.

J.M. Etxaburu adiskideak har beza bihotz-bihotzez nire zorionik kartsuena.

JUAN SAN MARTIN

Susperregi

ARTE - GALERIA

San Pedro, 1 20280 Hondarribia
Tel. 943 64 25 56 / 943 64 70 99 / 647 559 691
Faxa: 943 64 71 16
e-mail: garailan@jet.es
www.susperregi.net
susperregiarte@terra.es

Hawaii

Hawaiien dena da berezia

San Pedro kalea 12 • 943 64 20 76
Santiago kalea z/g • Zuloaga z/g • 943 64 17 58
Rebellin 3 • 943 64 48 00
20280 Hondarribia